# BEZEROEN/ERABILTZAILEEN PRIBATUTASUN POLITIKA
# AQUARBE, S.A.U.

**AQUARBE, S.A.U.-k labur-labur, erraz eta argi azaldu nahi dizu zuk emandako datu pertsonalak nola erabiltzen dituen. Horretarako, bere pribatutasun politikaren laburpena jarri du zure eskura; testu osoa, datuen babeserako araudi berrira egokitutakoa,** https://www.aquarbe.es/proteccion-de-datos **helbidean kontsulta daiteke.**

| | |
|---|---|
| **Erabileraren arduraduna** | AQUARBE, S.A.U.-ren ardura izango da zure datu pertsonalak tratatzea. (aurrerantzean, AQUARBE); helbidea, Ibarrekolanda kalea, 19, Bilbo. |
| **Datuen babeserako ordezkaria** | • Helbide elektronikoa: dpo.es@suez.com<br>Posta: Passeig de la Zona Franca 48, Planta 6, (08038) Barcelona, Datuen Babeserako AQUARBEren Ordezkariari.<br>• Datuen Babeserako AQUARBEren Ordezkaria ("**DPO**") zure zerbitzura dago zure datu pertsonalen tratamenduaren inguruko edozein zalantza argitzeko |
| **Erabileraren helburuak** | **Webgunearen bisitariak**<br><br>Gure webgunea gure bezero izan gabe bisitatzen baduzu, harremanetarako inprimaki /e-mailen bitartez zeure borondatez ematen dizkiguzun datuak jasoko ditugu, zure eskaerari edo kontsultari erantzuteko. Gogoan izan gure webguneak cookieak erabiltzen dituela (Kontsulta ezazu Cookie Politika https://www.aquarbe.es/politica-de-cookies).<br><br>**Bulego Birtualaren bezeroak eta erabiltzaileak**<br><br>Bulego Birtualaren bezero/erabiltzaile bazara, aurreko helburuetarako ez ezik, helburu hauetarako ere erabili ahalko ditugu zure datuak:<br><br>• Kontratatu duzun ur zerbitzua eta gainerako zerbitzuak emateko.<br>• Ur hornidurareren eta kontratatutako gainerako zerbitzuen inguruan sortzen diren intzidentziak izapidetu eta konpontzeko.<br>• Zuk zeure borondatez egiten dizkiguzun eskaerei (erreklamazioak, zalantzen inguruko kontsultak, larrialdi-deiak eta abar, besteak beste) kasu egitea.<br>• Zure ur-kontsumoaren inguruko informazioa ematea.<br>• Ur-hornidureren inguruko estatistikak edota inkestak egitea, zure kontratua indarrean egon bitartean.<br>• Bulego birtualerako sarbidea eta horren erabilera kudeatzea.<br>• Zerbitzuarekin loturarik ez duten inkestak egiteko, AQUARBEri edo SUEZ Taldeari buruz duzun pertzepzioa jakiteko, zure kontratuak iraun bitartean eta zure baimena ematen badiguzu, betiere.<br>• AQUARBEen jarduerari, horrek antolatzen dituen ekintzei, edo horrek ematen duen zerbitzuaren kudeaketari dagokionez bestek antolatzen dituztenei buruzko informazio komertziala bidaltzea, zuk baimena emanez gero, betiere.<br>• Zure ur-kontsumoaren etengabeko jarraipena egiteko eta zuk emandako beste datu batzuk uraren sektorearekin lotutako promozioak eta zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko erabiltzeko, zerbitzu hori duzun bitartean eta zure baimena ematen badiguzu, betiere. |

| | |
|---|---|
| **Erabileraren legitimazioa** | • Zurekin sinatutako kontratu bat egotea.<br>• Edateko uraren hornidura-zerbitzuaren araudia, nahitaez zure datu pertsonalak erabiltzera behartzen baikaituzte hainbat funtzio eta betebeharrek.<br>• Konpainiak isuriak eta iruzurrak antzemateko, balantze hidraulikoa egiteko, eta zerbitzua hobetzeko edota funtzionalitate berriak diseinatzeko estatistikak egiteko duen legezko interesa.<br>• Jasotzen duzun zerbitzuarekin lotura zuzenik ez duten aukerako erabileretarako zure baimena. |
| **Informazioaren hartzaileak** | • AQUARBEek kontratutako zerbitzuak ematen laguntzen dioten hainbat hornitzaile ditu.<br>• Zure datuak arlo horretan eskudun diren tokiko erakundeei laga ahalko zaizkie. |
| **Zure eskubideak** | • Zure datuetan sartu, eta datuak aldatzeko edo ezabatzeko eska dezakezu, bai eta portabilitate eskubidea egikaritu, informazio pertsonalarekin erabiltzaile profilak egiteari aurka egin, edo erabilera mugatzeko eskatu ere, https://www.aquarbe.es/proteccion-de-datos Pribatutasun Politikan azaldu bezala.<br>• Gogoan izan beti baliogabetu dezakezula zure datuak beste erabilera osagarri batzuetarako (publizitatea bidaltzeko, adibidez) erabiltzeko emandako baimena. |